



WELCOME to Tijuana

NERABEAK
LAGUNTZEKO
PROGRAMA

PROGRAMA DE
ACOMPAÑAMIENTO
A ADOLESCENTES



ZER DA?

WTT **ikasleak laguntzeko programa da**, jokaera txarra erakutsi edo ikastetxetik bota dituzten ikasleak, hain justu ere. **Haien aldeko apustua egiteko gunea** ere bada. Gogoeta egiteko gune horrek gazteen jabeakuntza, norberaren hazkuntza eta gaitasuna ere bultzatu nahi du.

NORENTZAT?

Nerabezarora helduta, muga-mugan dabilzan gazteentzat, euren buruarekin eta inguruarekin ere gatazkan.

Gazte horiek erantzun egokirik jaso ezean, muga horretan jarrai dezakete mugitu gabe eta handik irteten ikasi beharrean, bertan gera daitezke.

ZERTARAKO?


Gazteek ikas dezaten besteak errespetatzen eta bereizten eta erabakitzen noiz bai eta noiz ez.

Uler dezaten zertan datzan erantzukizuna eta euren erabakien ondorioen ardura har dezaten.

Hasieratik ikas dezaten beraientzat errazak izango ez diren alderdiak eta egoerak onartzen. Era berean, tresnak emango dizkiegu pertsona gisa hezteko.

Gogoeta-gunea eduki dezaten, non gazteek berek eragingo baitute aldaketa.

Motibazio pertsonala sendotu dezaten, haien helburuak identifikatu eta nola lortu azter dezaten.



NOIZ?

Ikaslea ikastetxetik bota dutenean edo ikasgelan jokaera desegokia erakusten duenean.

WTT programan parte hartzeko ordutegia eskolakoa da. Oro har, goizez izaten da.

NOLA?

1. **Ikastetxeak gaztearen familiari WTT programaren berri emango dio.**

Familiak onartu beharko du gazteak programan parte-hartzea. Ikastetxeak WTTren koordinatzaileei jakinaraziko die haien oniritzia. Ondoren, gazte bakoitzaren egutegia eta ordutegia zehaztuko dira.

2. **WTT programako koordinatzaileek gazte bakoitzari beren-beregi zuzenduriko ibilbidea ezarriko diote.** Ibilbide hezitzailea izango da: gaztea ikastetxetik botatzeko arrazoiekin erlazionaturiko jarduerak izango ditu eta gaztearen jokabide, interes edo gustuen arabera izango da.

3. **Lehen egunean gaztea bere tutoreekin joango da.** Tutoreei elkarrizketa egin eta gero, programan parte hartzeko baimena sinatuko dute.

4. **Geroago, esku-hartze sozioedukatiboa egingo dute:** gazteak une oro hezitzaile batekin egon beharko du. Bete beharreko jardueretan gidatuko du hezitzaileak. Halaber, gaztearen jokabidearen arabera jarraipena egingo du.

5. **WTT programako koordinatzaileek gaztearen parte-hartzeari buruzko txostena egingo dute.** Jarraian, ikastetxera bidaliko dute. Familiak ere jasoko dute txostena, hala eskatuz gero.

6. Zenbait kasutan, gaztearen jarraipena egiteko, ikastetxeetan bisitaldiak egingo dira edota tutoreari telefonoz deituko diote.

NON?

Gehienetan gure lokalean burutzen dugu programa. Halarik ere, zenbait dinamika egiteko beste toki batzuk aukeratu ditugu, hala nola Muskiz edo Ereagako hondartzak, futbol-zelaiak, parkeak, San Roke gizarte-etxeke nagusientzako jantokia eta abar. Betiere gaztearen beharren arabekoak izango dira dinamika guztiak.

